

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

ETXETIK PLAZARA

Iratze eta bertze...

SARIA:

BIDAZI elkarteko
bertako produktu
ekologikoz
osatutako
saskia

2020ko ABENDUA

170. ALEA

IRAKURLAN

Ira, iñistorra, iratza, iratze, irats, igatz edo garoa biltzeko hilabetea iraila da gurean. Landare honek (pteridium aquilinum izen zientifikoa duenak) berebiziko garrantzia izan du Euskal Herrian, baita indar sinbolikoa ere. Hori aztertzean, berehala konturatuko gara agerian jartzen digula ekonomia jasangarri eta zirkularraren adibiderik ederrena izan dela. Eredu xume honek historiak, paisaiak eta bizimoduak bat egiten zuteneko garaietara garamatza.

Garoaren ustiaketa erabat lotua izan da gertaera historikoei, baita baserritarrek paisaia edo natur baliabideak kudeatzeko izan duten moduen arteko erlazioari ere. Arlo ekonomikoan, izugarritzko garrantzia zuen landare honek; lurraren kudeaketa eta jabegoaren auzia lur-komunalekin erabat lotuta zegoen. Iratzeaz gain, egurra, fruituak, ganaduarentzako belazak... ustiaketen ziren. Baina garoaren ibilbidea emankorra eta oparoa zen. Abereen gorotzekin nahasturik, baserritarrek ongarri ezin hobea lortzen zuten (mineral aunitz baititu, magnesioa besteak beste). Horrekin, gero, udaberrian eta udan, barazki ederrak uzta moduan biltzen zituzten. Ongarriaz gain, bertze erabilpen bat ematen zitzaion, ganaduaren inaurkina edo oheak egitearena alegia, (bertze produkturik erosi gabe). Ganaduekin erabilia eta harekin sortutako simaurra berriro ongarri moduan soroetan zabaltzen zen. Herri-lur horien kudeaketan gertatzen ziren eraldaketak eragin zuzena zuten baserritarengan: nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jardueretan, baita paisaietan ere. Ekonomia zirkularraren oreka mantentzen zen.

XIX. Mendean, Independentzia Gerraren, Karlistaden eta lege liberalen ondorioz, komunalen desamortizazioa salerosketen bitartez bultzatu zen. Salerosketa horietan, baserritar gutxi izan zuten aukera lurra eskuratzeko. Jauntxoek eta dirudunek erosi zituzten, eta ondoren itxi, hala, guztion aprobetxamendua galarazi zuten. Horretaz gain, baserritarrak gerrara soldatu joateko behartuak izan ziren, uztak eta ganaduak ere konfiskatu zituzten, eta askotan, boterearen aurkako erresistentziaren zigorretan, baserri aunitz kiskaldu zituzten.

Harrapazka eguna

Iratzeak biltzeko egunak arras bereziak ziren gure arbasoentzat. Harrapazka eguna izaten zen iratzea moztu hasteko eguna, irailaren 8aren inguruan. Garoa ebakitzea gizonen lana zenez, badira hainbat adibide, non emakumeek baimena eskatu behar izaten zuten jarduera hori burutzeko: alargun gelditzen zirenean edo gizona eri zegoelarik. Baina emakumeen presentzia handia izaten zen jarduera horretan, ez baitzen aski moztea. Aurreko prestaketetan, baita ondorengoetan ere, emakumeen lana izugarri garrantzitsua izaten zen. Bandoak kaleratzen ziren egun horietako arauak eta prozedurak ezartzeko. Aunitz dira iratzea mozteko egunei loturiko kontakizun eta istorioak: moztu, gurdiak kargatu, etxera eraman, metak egin. Lan horiek burutzeko bideak eta gurdibideak txukuntzen ziren, derrigorrezkoak ziren auzolanen bidez.

Iratzea artean eta literaturan

Iratze-metak garai batean gauza guztiz funtzionala ziren. Gaur egun, beharbada, kutsu malenkoniatsua dute, edo objektu arkeologiko bihurtu dira. Baina gure kulturean, literaturan, hizkuntzan garoak arrasto ederra utzi digula erran daiteke, garo-usaina esamoldearekin, mundu zaharra edo baserri-mundua izendatzen baitzen.

Txomin Agirreren Garoa eleberrian erabat kostunbrista zen denbora irudikatua gelditu da. Literaturan, musikan, arte plastikoetan, toponimian, arropa-markako logotipoan... izugarritzko oihartzuna eta presentzia izan du.

LAN ETA LAN

Testuan aztertu dugu iratzeak historian zehar izan duen garrantzia; horretaz gain, hainbat bitxikeria ere agertu zaizkigu. Ongi ulertu ote duzun jakiteko, zortzi galdera prestatu ditugu. Egin, metatu, uzta ederra bildu eta zure euskara ongarriz jarraitu.



1. Iratzearen ustiaketan lurraren kudeaketa eta jabegoaren auzia zeri zegoen erabat lotua?

2. Zer lortzen zuten baserritarrek iratzea abereen gorotzekin nahasturik?

3. Bertze zein erabilpen garrantzitsu izaten zuen garoak edo iratzeak?

4. XIX. Mendean, gerren eta lege liberalen ondorioz, zer gertatu zen lur-komunalekin?

5. Nola zuen izena iratzea biltzeko lehendabiziko egunak?

6. Noiz izaten zen egun hori?

7. Garo-usaina esamoldearekin zer izendatzen zen?

8. Nola du izena Txomin Agirreren eleberri kostunbristak?

HITZAK DANTZAN

Testuan ikusi dugunez, iratzearen garrantzia itzela izan da. Toponimian ere garbi ageri da zenbat toki izen, izen... agertzen baitzaizkigu landare honen inguruan. Hona hemen adibideetako bat: Iratzeder, mendian, askatasunean bizi den iratzea edertu asmoz, IRATZE+EDER sortzen den hitz liriko eta ederra. Adibide honetan, eder atzikia dugu bertze hitz bat sortzeko.

Euskaraz -leku, -eta, -sail, -di/-ti, -tegi, -baso, -zelai... eta halako atzizkiak erabiltzen ditugu hitz berriak edo toponimoak sortzeko. Hona gure landarearekin lotuak:

Tokia adierazteko: irabaso, iraleku, iraeta, iralarre, irasail, iraztor, garosail, garoleku, garadi...

Biltzeko lekua: garotegi, iratzeta, iratz-meta, iratze-zinte...

Jarduera: iratze-pikatze/ebaite, iratze-epaile, iratze-garaia, iratzeketa, iratzeketari, iratze-metatze...


Horiez gain, abizen eta leku izen andana ere badugu: **Iraeta, Iraola, Irastortza, Iratzabal, Iratzoki, Iratzu, Irazola, Irazusta...** Irabia, Iragorri, Irain, Iraizotz, Iramendi, Irañeta, Irati,

Ondorengo esaldietan toponimoak kendu ditugu eta behean paratu ditugu. Dagokion tokian paratzea dagokizu.

- 1.- Urtero aitak eta aitatzik hogei ___1___ handi egiten zituzten.
- 2.- Mendialdeko herri guztietan lur-komunaletan ___2___ aunitz baziren, baina orain soro gehienek jabea dute.
- 3.- Baserri gehienetan,azienda zegoen tokietan, ___3___ handiak izaten ziren garoa gordetzeko.
- 4.- Euskal Herrian ___4___ toponimoa aski ohikoa dugu, gure bazterretan iratze anitz baitago.
- 5.- Gure eremuetan harizti, pagadi eta ___5___ zabalak ikusten ahal ditugu nonahi.
- 6.- Harrapazka eguna ___6___ edo iratze-moztearen lehenbiziko eguna izaten zen.
- 7.- Gure inguruan iratze toki aunitz daudenez, ___7___ abizen parrasta dago herriz herri.
- 8.- Iratze multzoak idortu ondotik, ___8___ orgetan zamatu eta baserrira eramane dituzte ondoan metak egiteko.

- a.- iratzeketariak
- b.- ira
- c.- garo-leku
- d.- Iratzoki

- e.- garotegi
- f.- iratze-pikatze
- g.- garadi
- h.- iratze-meta



BITXILOREAK

SASI GUZTIEN ARTETIK

Mendizaletasuna arrunt errotua dago euskal kulturan. Azken finean, inguruak horretarako parada ematen du: eremu naturalak hurbil, bidexka edota pista andana, ibilbide erraz edo zailxeagoak egiteko aukera... Hala, aunitz dira naturan bueltaxka bat emateko egun libre zein asteburuak aprobetxatzen dutenak. Halere, mendira joatea ez da uste dugun(1).... zoragarria izaten batzuetan; mendizaleak hainbat oztopo gainditu behar izaten ditu maiz, bere afizio horretan barneratzen delarik. Traba horiek zeintzuk diren jakin nahi? Testuko hutsuneetan, aukera egokia zein den asmatu beharko duzu lehendabizil!



Nori ez zaio inoiz gertatu aspaldian joan gabeko mendi-bideetatik sartu eta sasietako arantza zorrotzez zangoak ederki urratzea? Edota ibilbidea pixka bat inprobisatu nahi eta, hondarrean, basurdeen pare, ote eta iratze artean bidea ireki behar izatea?

Noski, mendi eta basoetan pentsatzen dugularik, paraje idilikoak etorri(2).... zaizkigu bururat, eta ez lahar, ote, sasi edo gure paradisu imajinarioa ilunduko duten bertzelako elementu batzuk. Baina argi izan behar dugu irudikatzen dugun paisai hori ez dela halabeharrez sortzen: maite ditugun soro berde, baso ordenatu edo bide garbi(3).... lanketa baten fruitua da; mendi eta basoen kudeaketaren emaitza, hain zuzen ere.

Lehen, baserritar eta herritarrak arduratzen ziren ingurunearen mantentze-lanez,(4).... beren eremuak garbituz, izan auzolanean eremu komunak mantenduz. Eta egun ere, hala da; baina mendiaz (edo mendiarekin) bizi direnak gero eta gutiago direla(5).... hartzen badugu, logikoa dirudi ingurua gero eta(6).... egotea.

Bertzalde, baserriaren gainbeheraren eskutik(7).... da azienden gutxitzea. Bistan da ardiek, behorrek, behiek eta edozein animaliak, oro har, funtzio garrantzitsua dutela soro nahiz basoen zainketan. Horiek gabe, bideak itxi eta sobera(8).... ez ditugun landareak gailentzen dira. Gainera, aipatu berri dugun arazoa ez da kontu estetiko hutsa: mendiak(9).... eta zikinago, suteak egiteko aukerak(10).... eta ugariago.

Ondorioz, paisaia idilikoa(11).... bihurtzeko bidean dagoela dirudi; izan ere, gizarte-eredua aldatuz doan(12)...., ingurua bera egokitu egiten da. Beraz, erran dugun bezala, paisaia gizartearen isla bada, sasi artean ibiltzera ohitu beharko dira mendizaleak.

ERNE, SARIRAKO!

- | | | | |
|---|---|---|--|
| 1. a) hain
b) adina
c) bezain | 2. a) ohi
b) ote
c) omen | 3. a) denak
b) guzti
c) oro | 4. a) dela
b) izan
c) bai |
| 5. a) kontuan
b) kontun
c) kontutan | 6. a) zikinagoa
b) zikinago
c) zikina | 7. a) joaki
b) joaten
c) doa | 8. a) gustoko
b) gustuko
c) gustoz |
| 9. a) gero
b) geroz
c) zenbat | 10. a) zenbat
b) orduan
c) gero | 11. a) utopiko
b) utopikoan
c) utopikoz | 12. a) einean
b) ehienean
c) heinean |



JOLAS-NAHAS

BELAR "TXARRAK"

Zerk egiten ditu belar batzuk on eta bertze batzuk txar? Ba al dago, egiazki, belar txarrik? Beno, argi dago belar batzuk bertze batzuk baino gogaikarriago egiten zaizkigula gizakioi, baina horrek ez du erran nahi molestutzen gaituzten landare horiek txarrik direnik. Gainera, txartzat ditugun landare horiek, preseski, mesedegarri zaizkigun hamaika propietate dute. Hala, beren inozentzia aldarrikatu nahiko genuke Etxetik Plazara aldizkaritik. Ariketa honetan, beraz, belar horien bilduma tiki bat osatu dugu, baina zure lana izanen da izena ematea:



1.....



2



3



4



5



6



7



8



9



a) Lapaitza/Lapatina

d) Asuna

g) Laharra

b) Barrabas-belarra

e) Otea

h) Intsusa/Sabuka

c) Iratzea

f) Astakardua

i) Menda-belarra/Astamenda

ERANTZUNAK



LAN eta LAN (3. or.):

1. Lur-komunalekin; 2. Ongarria; 3. Ganaduen inaurkina edo oheak egiteko; 4. Salerosketen bitartez desamortizazioa bultzatu zela; 5. Harrapazka eguna; 6. Irailaren 8aren inguruan; 7. Mendu zaharra edo baserri-mundua; 8. Garoa

HITZAK DANTZAN (4. or.):

1- h; 2- c; 3- e; 4- b; 5- g; 6- f; 7- d; 8- a

JOLAS-NAHAS (6. or.)

1- c; 2- d; 3- a; 4- g; 5- e; 6- b; 7- f; 8- i; 9- h

169. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- c; 2- b; 3- a; 4- a; 5- b; 6- a; 7- c; 8- c; 9- b; 10- b

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

SARIA:


BIDAZI elkarteko bertako produktu ekologikoz osatutako saskia

169. aleko irabazlea:

Irune Ariztegi Mariezkurrena
Iturengoa

ETXETIK PLAZARA liburua, DEBALDE!!

**Eska ezazu,
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko
IKA euskaltegietan**



OHARRA: erantzunak abenduaren 22a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. OR.):

1 - _____	5 - _____	9 - _____
2 - _____	6 - _____	10 - _____
3 - _____	7 - _____	11 - _____
4 - _____	8 - _____	12 - _____

EP 170 (2020/12)



ika

euskara errazago egiten



EUSKARA berri on!!

ESKER ONEZ

beteriko SU-PINTTARRAK;

Etxalarko Herriko Ostatua eta Donamariko Benta jatetxei, Lesakako Lindurrenborda sagardotegiari, Beko mintegiari, Bidazi Elkarteari, Bortziriak eta Malerrekako Euskara Mankomunitatei eta Baztango Udalari....

... eta ESPERANTZA eta ESKER ON SUTARRI GORIAK

birus guztien gaintetik euskaltegion eta euskalgintzaren egoera sendotzeko, bultzatzeko eta babesteko ahaleginetan dabilen Nafarroako Gobernuari... ea asmo onak hobetzen eta gauzatzen ahal diren.

... eta BEROTASUN GOXOA EUSKARA

erabiltzeko, hobetzeko, ikasteko, babesteko eta EUSKARAZ osasuntsu bizitzeko ahaleginetan ari zareten Etxetik Plazarazale eta euskaltzale guztiei. Ea 200. alera ailegatzen garen!!



Aldizkari honen egileak:

Bortziriak eta Malerrekako IKA Euskaltegiak

Marrazkiak:

**Joseba Larratxe
Mathilde Brugiére-Garde**

Diseinua eta maketazioa:

**Raul Garcia Etxeberria
Mathilde Brugiére-Garde**

Laguntzaileak:

**Nafarroako Mendialdeko
EUSKARA**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziritako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

